



EKONOMIA ETA ARAUTEGIA KONTROLATZEKO TXOSTENA, KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EGINDAKOA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNAREN, PARTE-HARTZEAREN ETA GOBERNU ONAREN LEGE-PROIEKTUARI BURUZKOA (Tramitagune arauzko xedapen orokorra_64397/2015_02 LEGEA)

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak III. tituluaren IV. kapituluaren arautzen du ekonomiaren eta arauen kontrola. Derrigorrezko izaera du eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten duen txostenaren bidez gauzatzen da.

Kontrol horretan sartzen da, ekonomiari eta antolamenduari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren organo oroaren eraketa zein ezabaketa fiskalizatzea, baita organo horien aldaketak eta berregituraketak fiskalizatzea ere.

Aipatutako araua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluko 3. atalean xedatutakoa, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura eta zereginak finkatzeko apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 4. artikulua kontuan hartuta, honako txosten hau eman da.

TXOSTENA

I. XEDEA

Txosten hau goiburuan aipatutako legeproiektuari buruzkoa da; legeproiektu horren helburua, 1. artikuluan adierazi bezala, Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta entitateetan eta, zehazki, Autonomia Erkidegoko sektore publikoan, honako hauek zabaltzea eta indartzea da: administrazio-jardueraren gardentasuna eta publikitatea, gobernu ona, informazio publikoa ikusteko eskubidea baliatzeko baldintzak, politika publikoen ebaluazioa eta baita herritarren parte-hartzea ere zuzenean edo zeharka interes publikokoak diren diseinuetan eta erabakietan.

Aztertu nahi den legeproiektuaren aurreikuspenen artean nabarmentzekoa da, bere izaera antolatzaileagatik, Gardena - Gardentasunaren Euskal Agentziaren sorrera erakunde autonomo gisa. Agentziaren helburuak dira jarduera publikoaren gardentasuna sustatzea, datuen publikitate aktiboaren eta datuen irekieraren betebeharrak betetzen direla zaintzea eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera babestea.

Bestalde, aurreproiektuaren testuari Euskal Sektore Publikoaren kontzeptua gaineratzen zaio, Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Lege-proiektuan definitu eta zehaztuko dena. Ekonomia kontrolako organo honek 2015eko uztailaren 31n lege-proiektu horren berri eman du. Horrela, bada, aplikazio-eremuarekin bat (3. artikulua), Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztiei aplikatuko zaizkie legeak arlo horietan ezartzen dituen printzipio orokorrak, beren antolakuntza-arauetan ezarritako moduan.

Aurreikuspen horrekin Legebiltzarraren agindua bete nahi zen, hau da, herritarrek euskal administrazio publikoekiko harremanetan dauzkaten eskubide eta betebeharrak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren Lege-proiektuari gehitzea. Gure ustez, ordea, asmo hori ez dago ondo zehaztuta, aurreproiektuaren lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriek Euskadiko Udal Legean xedatutakoari eusten baitiote, udal erakundeei eta haien sektore publikoari dagokienez, edo bestela, antolakuntza eta funtzionamenduarauerei eusten baitiete, foru organoei eta haien sektore publikoei dagokienez. Ildo horretatik nabarmentzekoa da, adibidez, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko betebeharrak ez betetzeagatik diziplina arloko arauhausteen erantzuleen artean (48. artikulua) sartzen direla euskal sektore publikoko goi kargudunak edo zuzendaritzako karguak eta euskal sektore publikoko gainerako entitateetako goi-kargudunak eta zuzendaritzako langileak, *"azken horiei lege hau aplikagarria bazaie"*.

Era berean, Euskal Sektore Publikoko Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Lege-proiektuaren ekonomia eta arautegia kontrolatzeko izapidean adierazi genuen bezala, gai horretan Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztien adierazpenari lotu beharko zaio; izan ere, prozedura hasteko aginduan aurreikusten den moduan, aurreproiektua entzunaldirako izapidearen pean jarriko da, EUDELI eta hiru foru aldundiei iritzia eskatuta.

II. AURREKARIAK ETA BIDALITAKO DOKUMENTAZIOA

Lehenengo eta behin, aipatu behar da aurrekaririk hurbilena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari buruzko Lege-proiektua dela, Gobernu Kontseiluak 2014ko irailaren 16ko bilkuran onetsitakoa. Hala ere, lege-ekimen horrek ez zuen aurrera egin, 2015eko apirilaren 23an Gobernuak kendu baitzuen.

Horrela, egindako testuak Euskal Administrazio Publikoari buruzko Lege-proiektuaren edukia du abiapuntu, prozedura hasteko aginduak berretsi eta baieztatzen duen moduan. Izan ere, aginduak ezartzen du aurreproiektuak oso aurrekari hurbila izango duela, hau da, huts egin zuen Euskal Administrazio Publikoaren Lege-proiektua, eta honako hau eta antolakuntza eta funtzionamenduko gaiei buruzko aurreproiektua (aipatutako aurreproiektuaren zatiketarik eratortzen dena) aldi berean izapidetu daitezkeela.

Eusko Legebiltzarrak 2015eko ekainaren 18an onetsi zuen 13/2015 mozioa ere hartu behar da kontuan, administrazio publikoari buruzko beste lege bat planteatzeko egin beharreko urratsei buruzkoa. Mozioak hau dio, hitzez hitz:

"Eusko Legebiltzarrak honako hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

1.- Ganbera honetara bidal dezala euskal sektore publikoaren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko lege-proiektu bat, sektore publiko gisa ulertuta euskal administrazio publikoei beraien eremu komun, foral eta lokalean lotuta dauden sektore publiko guztiak. Helburua da euskal sektore publiko efiziente eta eraginkorra egituratzea, dauden erakundeen arrazionalizazioa lortze aldera.

2.- Ganberara bidal dezala euskal sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onari buruzko lege-proiektu bat, apustu egingo duena baliabide publikoen kudeaketan erabateko gardentasuna izatearen alde eta herritarren parte-hartze aktiboaren alde, eta, printzipio orokorrez gain, jasoko dituen herritarren eskubide eta betebeharrak oinarritzekoak eta komunak euskal administrazio publiko guztiekin dituzten harremanetan.

3.- Bi lege horiek egiterakoan, duten garrantzia aintzat hartuta, kontuan izan ditzala legebiltzar-taldeek Gobernuak bertan behera utzitako Euskal Administrazio publikoaren lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketak. Helburua da ahalik eta adostasun handiena lortzea, tramitazioa ahal beste arintze aldera.

4.- Bi proiektuak Ganberara bidal ditzala hurrengo bilkura-aldia hasi baino lehen, haien tramitazioari lehenbailehen ekite aldera."

Ildo horretatik, ahalik eta adostasun handiena lortzeko, aurreproiektu honek jatorrizko proiektuan jasotako alderdietako batzuei heltzen die eta, bereziki, gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta gobernu ona gaiei buruzko alderdiak arautzeari, aldaketa garrantzitsu batzuk gorabehera (geroagoko beste atal batean azalduko dira aldaketa horiek).

Horrela, prozedura hasteko aginduarekin bat etorruta, ekimenaren xedea eta helburua da EAEko sektore publikoko funtzionamenduaren oinarritzeko ardatz batzuk arautzea, "zeharkako irizpideak direlako, horrela, gure Gobernantza-ereduaren oinarriak jarrita. Hori politika publikoen ebaluazioak, gardentasunak eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeak eratzten duten triangelu kontzeptualean oinarritzen da, eta bere helburua gizarte-, ekonomia- eta erakunde-garapen iraunkorra lortzea da, gobernuaren ekintzaren, gizarte zibilaren eta gizarte- zein ekonomia-jardueraren orekan oinarrituta".

Laburbilduz, aurreproiektua eta Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Lege-proiektua bat datoz gai askotan; horregatik, ekimen biak aldi berean izapidetzea gomendatzen da; dena dela, zehaztu beharko da bi legeak egun berean sartuko diren indarrean edo bien artean lehentasun hurrenkera ezarri beharko den.

Gainera, aurrekariaren atal hau amaitzeko, Euskal Administrazio Publikoaren aurreko proiektuaren aurrekariak ere aipatu behar dira, eta izapidetu den proiektuarekin duten lotura dela eta, honako aurrekari hauek aipa daitezke:

-X. Legealdiaren (2012-2016) legegintzaegutegiak, 2013ko ekainaren 25ean Gobernu Kontseiluak onetsitakoak, orain bikoizten den hasierako legeproiektua aipatzen zuen.

-Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea. Aipatu behar da, baita ere, autonomia erkidego mailan sustatutako Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Lege-proiektua; dena den, proiektua izapidetzen ari zela, legegintzaldia amaitu eta proiektua bertan behera geratu zen.

-Herritarren parte-hartzeari dagokionez, Legegintzako Herri Ekimenari buruzko ekainaren 26ko 8/1996 Legea aipatu behar da.

-2015eko urtarrilaren 13an Gobernu Kontseiluak hartutako erabakia; haren bidez, informazio publikoa eskuratzeari, publizitate aktiboari eta gardentasun eta gobernu onaren kulturaren aurrerapenari buruz EAeko Administrazioan funtzionamendu-arau batzuk onartu ziren. Hala ere, gai hori Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez arautzean sor litezkeen arazoak konponduta geratuko lirateke proiektuaren erregulazioari esker.

Aurretik esandako guztia ikusita eta espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, ondorioztatu da ekimena sustatu duen sailak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 8/2003 Legea kontuan hartu duela. Era berean, aipatutako dokumentazioa funtsean bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. eta 43. artikuluetako aurreikuspenekin, eta hori nahikoa da bulego honek ekonomiaren eta arautegiaren kontroljarduketa egiteko, bai eta ekonomia eta antolakuntza arloan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 25-27 artikuluetan ezarritakoarekin bat. Aurrekoa gorabehera, ohartarazten da Datuak Babesteko Euskal Bulegoak txostena eman duela 2015eko martxoaren 30ean, eta zenbait ohar eta hausnarketa egiten dira aurkeztutako testuaren inguruan. Hala ere, Kontrol Ekonomikoko Bulego honek ez daki oraindik ohar eta hausnarketa horien artean zeintzuk hartuko dituen kontuan ekimenaren sail sustatzaileak.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da espedientean memoria labur bat sartzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan eskatzen den edukiarekin. Horretarako, adierazi behar da Herri Administrazio eta Justizia Sailak 2015eko uztailaren 29an memoria osagarri bat sartu zuela espedientean, ordura arte egindako alegazioak aztertzen zituen.

Atal hau amaitzeko, adierazi nahi dugu ekonomia eta arautegia kontrolatzeko izapide hau egin ondoren nahitaezkoa dela Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena. Eta gogorarazten dugu irizpen horren ondorioz aurreproiektuan aldaketak sartzen badira, bulego honi jakinarazi beharko zaizkiola, Euskal Autonomia

Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.1 artikuluekin bat, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen azken xedapenetako lehenengoak emandako idazketan.

III. ANALISIA

1.- Lehenengo eta behin esan behar da izapidetu den proiektuak Euskal Administrazio Publikoaren Lege-proiektuak jasotako agindu berberak jasotzen dituela; hori dela eta, aipatutako ekimena izapidetzean 2014ko ekainaren 26an egindako oharrei heldu diegu, honako honetan jaso direnak eta gure iritziz, kontuan hartu behar direnak.

Hala ere, aurreproiektuaren III. Tituluak, publizitate aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko bermea gardentasunaren oinarri gisa ezartzen dituenak, berritasun garrantzitsuak dakartza Euskal Administrazio Publikoaren Lege-proiektuaren testuaren aldean.

Horrela, esaterako, honako hauek sartzen ditu berritasun gisa: herritarren eskubideak eta betebeharrak gardentasunaren arloan (1. artikulua); publizitate aktiboaren printzipio gidariak (22. artikulua), edo informazio publikoa eskuratzen duten pertsonen betebeharrak (35. artikulua).

Horretaz gain, informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoen (18. artikulua) eta pribatuen (19. artikulua) eremua zabaltzen da, bai eta eman daitekeen informazioaren beraren eremua ere (2431 artikulua); esaterako, argitaratuko da sektore publikoan bigarren lanpostu edo jarduera bat edukitzeko bateragarritasuna baimenduta daukaten enplegatu publikoen zerrenda, eta jarduera pribatuekiko bateragarritasuna aitortuta dutenena (24.5 artikulua), administrazio-bidean berrikusteko prozedura bat izan duten egintzak (26.1.g artikulua), garrantzi publikoa izan dezaketen ebazpen administratibo eta judizialak (26.1.h artikulua), eta zerbitzu publikoetara iristeko dauden itxaron-zerrendak (31.2 artikulua).

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen titularren eremua ere zabaltzen da (33. artikulua) erakundeak, plataformak edo sareak barne hartuta, eta informazioa eskuratzeko prozedura errazten da.

Azkenik, nabarmentzekoa da zehapen-araubide bat ezartzen dela (4755 artikulua) gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko betebeharrak ez betetzeagatik; aurreproiektuaren zioen azalpenak adierazi bezala, zehapen-araubide zorrotz horren helburua da lege honetan ezarritako betebeharrak benetan betetzen direla ziurtatzea, erakunde publikoen "*erabateko publikotasunerako*" egiten duten deia "*ez dadin geratu asmoen deklarazio huts batean*".

2.- Halaber, aintzat hartu beharrekoa da proposatzen den erregulazioak beste sektorearautegi bat (ondarea, aurrekontua, kontratuak, ogasuna, finantzak, diru-laguntzen arautzailea, funtzio publikoa...) azpimarratzen duela, eta zalantzan geratzen da aurreproiektuaren edukiak modu tazituan indarreko arauak indargabetzen dituen edo haiei gaineratzen zaien. Gauza bera esan daiteke beste sektore-arau batzuetan ezarritako publizitate eta informazio errekerimenduen arloan. **Horretarako, gure iritziz, aurreproiektuak berariaz jaso beharko luke publizitate aktiboaren arloko betebeharez gain, dagozkion sektore-arauetan eskatutakoak ere bete behar direla. Espedientean dagoen memoria osagarriak ezartzen duen bezala, egia da proiektuaren 16. artikulua "sektore bakoitzeko legeak" aipatzen dituela; dena den, aipamen orokor hori gorabehera, maila bereko arauak elkarren aurka egon daitezke, eta hori konpontzeko interpretazio bidetik jo beharko litzateke.**

Ildo horretatik, proposatutako arautegia egokia den ala ez kontuan hartu gabe, artikulua batzuek zuzeneko eragina dute Ogasun eta Finantza Sailak ekonomiari buruzko informazio eta gardentasunaren arloan dituen eskumen batzuetan; izan ere, ekonomiari buruzko sektore-arau ugari informazio asko ematera behartzen du, aurreproiektuaren artikuluetan ezarritakoa baino gehiago. **Horrela, aurreproiektuaren arabera publizitate aktiboaren xede izan behar den informazio garrantzitsuaren barruan dago laguntza eta diru-laguntzei buruzko informazioa (27.2 artikulua), kontratuei buruzkoa (28. artikulua) eta ekonomia, aurrekontu eta ondareari buruzkoa (30. artikulua).**

Beraz, gure ustez, berrikusi egin beharko litzateke segurtasun juridikoaren onerako, batetik, diru-laguntza eta kontratuen arloan sektoreko arauak eskatzen duten informazio-betebeharrak kontuan hartuta, eta bestetik, aurrekontuen eta kontrol eta kontabilitatearen arloan arauak eskatzen duten informazioari helduta. Horri dagokionez, aurreproiektuaren 30. artikulua 1. eta 2. atalak kendu eta haien ordean idazketa hau jartzeko proposamena egiten da berriro ere:

"1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak argitara emango du, osatzen duten entitate guztientzat, gai hauei buruzko informazioa: bere aurrekontuak eta haiek gauzatu eta likidatzea, zorpetze-maila, finantza eta ondare arloko egoerari buruzko aldagaiak, kontuen auditoretzaren txostenak eta kanpoko kontrol-organoen fiskalizazio txostenak, aurrekontu-arautegiarekin bat eta aplikatu beharreko gainerako kontrol eta kontabilitate-arauekin bat."

Proiektuaren 28.5 artikulua idazketa dela eta, isilpeko edo ezkutukotzat jo diren kontratuei edo gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak behar dituzten kontratuei buruzkoa, Kontrol Ekonomikoko Bulego honen ustez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurreproiektuaren 153. artikulua ezartzen duena hartu beharko litzateke kontuan, hau da: *"Kontratazio-organismoak aukeratu dezake esleipenari buruzko hainbat datu ez jakinaraztea, baldin eta uste badu, espedientean behar bezala arrazoituz, informazio hori zabaltzea eragozpen izan*

daitekeela arau bat aplikatzeko, edo interes publikoaren aurkako gerta daitekeela, edo enpresa publiko edo pribatuaren legezko merkataritza interesak edo beren arteko lehia leiala kaltetu ditzakeela; gauza bera egin dezake kontratua sekretua edo erreserbatua denean eta kontratua gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak aplikatu behar direnean indarreko legeriaren arabera, halaber estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babesteko beharrezkoa denean (kasu honetan, babes-beharra 19. 2. c artikuluan ezarritakoaren arabera adierazi behar da)".

Aurretik esandako guztian oinarrituta, proiektuaren 28.5 artikuluari idazketa hau ematea proposatzen da:

"5. Kontratuaren legeriaren arabera isilpeko edo ezkutukotzat jo diren kontratuetan, edo gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak behar dituzten kontratuetan, edo Estatuaren segurtasunerako oinarritzko interesak babesteak hala eskatzen duenetan, kontratu horiek egiteari buruzko zenbait datu argitaratu gabe utzi ahal izango dira, eta dagokion kontratazio espedientean justifikatuko da hori."

27.3 eta 28.1 artikuluei dagokienez, haiek berrikustea gomendatzen dugu, gardentasunaren printzipioak eta betebeharrak behar bezala betetzen laguntzeko.

3.- Gardentasunerako eta gobernu onerako erakundeak direla eta, Gardena - Gardentasunaren Euskal Agentzia erakunde autonomo gisa sortu izana nabarmendu behar da. Agentzia horrek autonomia eta independentzia osoa eduki du helburuak lortzeko, eta EAEko administrazioarekin harremanetan egongo da administrazio publikoaren arloko sail eskudunaren bitartez.

Ildo horretan, dauzkan ezaugarri bereziak gorabehera, agentzia erakunde autonomoa da; beraz, **bere eraketarako** Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Lege-proiektuaren 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa aintzat hartu behar da. Horrela, bada, 44. artikulua ezartzen du, besteak beste, espedientean **erakunde berri bat eratu beharra justifikatu, errepikapen organiko edo funtzionalik ez dagoela bermatu eta aukeratutako pertsonifikazio-era egokia dela azaldu behar dela** (memorian zuzenbide pribatuko erakunde publikoa erabiltzeko aukera baino ez da baztertzen). Alderdi horiek eta aipatutako artikuluetan jaso direnak ez daude espedientean. Espedientearen justifikazio-txostenak egiten duen gauza bakararra da antzekotasunak ezartzea erakunde berri horren eta estatu mailako Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren artean.

Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Lege-proiektuaren 45. artikulua ezartzen du, erakundearen administrazioari bakar-bakarrik dagokionez, erakunde horiek eratzeko lege-proiektuaren gutxieneko edukia jaso behar duela **zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaion ekonomia eta finantzen araubidearekin eta giza baliabideekin lotutako gaitan, zer langile eta ondare atxikitzen zaion erakundeari, eta zer baliabide**

ekonomiko dituen funtzioak betetzeko (azken hori proiektuaren 70.3 artikuluan jaso liteke). Gai horiek guztiak Estatuko Ogasunari dagozkio, eta haien erregulazioa ezin daiteke berriro bidali geroagoko arautegi-garapen batera estatutuen bitartez

Gainera, Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Lege-proiektuaren 44.5 artikulua ezartzen du **Gobernu Kontseiluak hasierako jardun-plana, erakundearen ekonomia eta finantzako azterlana eta lehenengo ekitaldiko aurrekontua onetsi behar dituela**, eta onespenerabaki hori eta erakundea sortzeko proiektua onesten duen erabakia aldi berean hartu behar direla. Horrek zuzeneko eragina dauka 70.4 artikulua aurreikuspenean, eta aurreikuspen hori 44.5 artikulua xedatutakoaren eremuan ulertu behar da; hala ere, erabaki biak aldi berean hartzeko aurreikuspena zalantzan jartzekoa da, lege-proiektu baten izapidetzea dela kontuan hartuta.

Aurrekoari gaineratu behar zaio Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoa. Artikulu horretan, ekonomia eta arautegia kontrolatzeko izapidean, ekonomia eta antolakuntza arloan, aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzen da, eta erakundea sortzeko egokitasuna edo beharra justifikatzeaz gain, beharko diren giza baliabideen (txosten ekonomikoan jasota dago) eta baliabide materialen aurreikuspena eta zerbitzuen funtzionamenduaren eta errendimenduaren edo erabileraren kostuaren azterlan ekonomikoa ere aurkeztu behar da.

Beraz, erakunde autonomoaren sorrerari buruz gabezia handiak daude espedientean eta arretaz aztertu beharko dira.

IV. EKONOMIA ETA AURREKONTUEI BURUZKO ALDERDIAK

Atal honetan, aurreikusitako gastu eta diru-sarreretan, ekonomiari buruzko zenbait alderditan eta ekonomia eta antolakuntzako arauetan proiektuak daukan eraginari zuzenean lotutako alderdiak landuko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikulua arabera, beharrezkoa da memoria bat egitea, ekonomia eta arautegiaren kontrolari buruzko txostena emateko. Memoria horretan, besteak beste, hauek jaso behar dira: araua indarrean sartzeak ekarriko dituen aurrekontuko gastu eta diru-sarreraren kuantifikazioa; gastu horien finantzaketa-bidea; xedapenaren aurrekariaren eta beharrezkoaren deskribapena; xedapena sartzen den aurrekontu-programa ekonomikoaren deskribapena, helburuak, ekintzak eta adierazleak identifikatuta; araua aplikatzeak ekonomian eta gizarte mailan izango dituen eraginaren ebaluazioa; proposamena gaitzen duten ildo nagusiak eta oinarri juridikoak ezagutarazten duten datuak, txostenak eta azterlanak. Azken finean, erregulazioak izango duen eragin ekonomikoari buruzko ebaluazio osoa egin nahi da, araua onartu baino lehenagoko hausnarketa-prozesuaren barruan. Hori

eginez honako hau lortu nahi da: gastu publikoan ekonomia eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen direla bermatzea. Halaber, arauak partikularrengan eta ekonomian, oro har, daukan eragin ekonomikoa balioetsi nahi da, araua arrazoizkoa eta bideragarria dela bermatzeko.

Hortaz, memoria ekonomikoak izan behar dituen edukiak Kontrol Ekonomikoko Bulego honetara bidalitako espedientean dagoen dokumentazioarekin erkatu beharko dira. Horrela, memoria ekonomikoak aipatzen dituen zenbait alderdi honela sailkatuko ditugu deskribatzeko:

1.- Administrazioaren funtzionamendua hobetzeko ezarri nahi diren tresnak gaur egun dauden giza baliabide eta aurrekontuko baliabideekin batera ezar daitezke; dena den, bultzada emateko hasierako fasean partida bereziak beharko dira, jarraian zehaztuko direnak, Gardena - Gardentasunaren Euskal Agentzia sortzeko planteamenduz gain (hori aurrerago zehaztuko da).

a) Administrazioaren berrikuntzaz eta hobekuntzaz arduratzen diren unitateetako partidak beharko dira plangintzaren kultura, politika eta programa publikoen ebaluazioa ezartzeko, langileak trebatuz eta eskuliburu-gidak eta ereduak garatuz. Hala eta guztiz ere, politika publiko guztien funtsezko zati gisa, plangintza eta ebaluazioa politika hori gauzatzeko gastuetan sartuko dira, horrek dakartzan sustapen-neurriekin eta zerbitzu edo prestazioekin batera. Gaur egun, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak badauka aurrekontuko partida bat, 60.000 eurokoa, "politika publikoen ebaluazioa" kontzepturako.

b) Gardentasunak berekin dakar publizitate aktiborako betebeharra, eta, informazioa mantentzea errazagoa izan dadin, informazio-sistema automatizatuak ezarri beharko dira, datuen kudeaketa barne mailan eta maila publikoan jasotzen dutenak. Horrek esan nahi du, prozedurak digitalizatzean, kontsultak eta ikuspegiak Interneten eskuratu ahal izatea aurreikusi behar dela. Hasierako abiapuntua oso ona da, lege-ekimen horrek aurreikusten duen ia-ia informazio guztia Gardentasun Atarian argitaratzen baita. Hemen sartutako jarduketak bultzatzeko, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak 81.600 euroko aurrekontu-partida dauka.

c) Datu publikoak berrerabiltzea eta irekitzea nahitaezko agindu tekniko da, oinarritzko erregulazioan jasotzen baita (Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko 37/2007 Legea eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea), eta beraz, Sektore publikoaren gardentasunaren, parte hartzearen eta gobernu onaren Lege-proiektu honetan ere bai. Urrats garrantzitsuak eman badira ere, oraindik beharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzaren datu-base asko apurka-apurka egokitzen joatea, ireki eta berrerabiltzeko. Horretarako, lanerako plan operatiboa abiarazi beharko da dagokion aurrekontu-

zuzkidurarekin. Garatuko diren jarduketei, aurretik aipatu direnei, hain zuzen ere, 300.000 euroko aurrekontu-partida esleitu zaie kontzeptu horretarako Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan, eta 2016. urterako 400.000 euroko konpromiso-kreditu bat dute.

d) Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria edo parte-hartzea sustatzeko beste neurri batzuk hedatzeko (sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak, ekimen zibikoak babestea...) zuzkidura ekonomikoa beharko da, arloaren arabera sailetan sustatzen diren jardueretarako aurrekontu bakoitzean zehaztuko dena. Adibidez, ez da ahalegin berdina egin beharko lege "tekniko" baterako, edo herritarrengan zuzenean eragin handia duen lege baterako. Aurrekontuan egingo den ahalegina herritarren partaidetzan eskumena duen organoak zehaztuko du. Gaur egun, laguntza-ildo batzuk daude kultura, kirola, gazteria, emakumeak... sustatzen dituzten elkarteei laguntzeko. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak 40.000 euroko aurrekontu-partida dauka "Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria" kontzepturako.

2.- Proiektuak Gardentasunaren Euskal Agentzia izeneko erakunde autonomoa sortzea aurreikusten du, eta erakunde horren egokitzapen juridikoa txosten honetako aurreko atal batean aztertu da. Memoria ekonomikoak, Lehiaren Euskal Agintaritzaren egitura oinarri hartuta, hau adierazten du: *"Gardentasunaren Euskal Agentziaren egitura antzekoa izango litzateke, baina askoz txikiagoa, zuzendari bat, bi abokatu eta idazkari bat izango litzateke-eta. 4 pertsona, guztira. Lehiaren Euskal Agintaritzan, berriz, 12 pertsona daude. Horregatik, Gardentasunaren Euskal Agentziarako kalkulatu da kostua Lehiaren Euskal Agentziarako kostuaren % 26 izango dela; hau da, 294.368 euro urtean."* Baina ez du ezer esaten plaza horien jatorriari buruz, hau da, lanpostuak berraxikitzeagatik, langileak berrizendatzeagatik edo giza baliabideak arrazionalizatzeko eta antolatzeke beste neurri batzuegatik sortuko diren ala ez. Horri 18.000 euroko zenbatekoa gaineratu behar zaio urtean, funtzionamenduko gastuegatik.

3.- Gobernu irekiaren plataformak, kanal askotatik herritarrekin harremanetan jartzeko tresna gisa (gaur egun, *Irekia* izenekoa), aurrekontu partida dauka, baina memoria ekonomikoak ezartzen du plataforma horren mantentze-lan eta aldaketek aurrekontu handiagoa edo txikiagoa eska dezaketela.

4.- Aurrekontuen Zuzendaritzaren esku-hartzea dela-eta, parametro ekonomikoak eta aurrekontuak funtsean aldatu gabe daudenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari buruzko Lege-proiektua izapidetzean kontuan hartutakoen aldean, 2014ko ekainaren 20an izapide horretan eman zen txostena indarrean dago oraindik ere. Nolanahi ere, txosten horren ondorioak espedientean bildu ditugu oroigarri gisa (aipatzen diren urte naturalak urtebete aurreratu behar dira):

2014. urterako EAEko aurrekontu orokorretan finantzazioa dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari buruzko Lege-proiektua 2014ko ekitaldian betearazteko. Emaizazko kostua, lege hori indarrean sartu denetik, Herri Administrazio eta Justizia Saileko aurrekontu-zuzkiduren kargura finantzatu beharko da, eta sailak egokitzat jotzen dituen aurrekontu-aldaketak egingo ditu. 2015. urterako aurrekontu-gastuari dagokionez, Herri Administrazio eta Justizia Sailak erakunderako behar diren zuzkidurak esleitu beharko ditu 2015erako aurrekontuen aurreproiektuan, eta, hala badagokio, saileko kreditua berriro esleitu beharko du.

Era berean, geroagoko aurrekontu-ekitaldietako jarduketa batzuetarako behar den finantzazio osagarriari dagokionez, sailak kreditua berriro esleitzean, saileko beste kreditu batzuetatik egin beharko du.

"Gardentasunaren Euskal Agentzia" azken ildoari dagokionez, Administrazio Publikoari buruzko Lege-proiektuak erakunde berri bat sortzea aurreikusten du. Gardentasunaren Euskal Agentziaren egitura hau litzateke: zuzendari bat, bi abokatu, idazkari bat eta administrari bat. 2014rako urteko ordainsaria eta Gizarte Segurantzako kostua 276.368 euro dira, eta funtzionamenduko gastuak 18.000 euro. Hortaz, 2014. urterako Gardentasunaren Euskal Agentziaren kostua 294.368 euro da.

Bestalde, Administrazio Publikoari buruzko Lege-proiektuak ez du betetzen 2015eko aurrekontuak prestatzeko gidalerro ekonomikoen 5. puntuan ("aurrekontu irizpideak") ezarritakoa, hau da, ez du jasotzen erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio edo partzuergo berriak sortzea.

5.- Memoria ekonomikoak aipamen orokorra egiten die "Herritarrak hartzea eta administrazioa berritu eta hobetzea" izeneko 1215 programaren eta "Lehendakaritzaren egitura eta laguntza" izeneko 1121 programaren helburu, ekintza eta adierazleei; horrela, bertan dagoen informazioak, bereziki, adierazleei eta beren magnitudeei buruzkoak, legeak berak ezarritako helburuak nola betetzen diren ebaluatzeko balio dezake.

6.- EAEko herritarren parte-hartzerako eta elkarlanerako eta askotariko interesen ordezkari diren taldeentzako erregistroari dagokionez, memoria ekonomikoak ez du zenbatespenik egiten erregistroa ezartzeak ekarriko lituzkeen kostuen inguruan, ez kostu materialak (euskarri informatikoak, telematikoak...), ez kostu pertsonalak (dauden baliabide pertsonalekin erantzun arren, informazioa eman behar da eragina jaso lezaketen postuei buruz, funtzio horietarako aurreikusten den dedikazioari buruz...). Dena den, kostu horien zenbatespena geroagoko aurreikusi diren arautegi-garapenetarako utziko da.

V.- ONDORIOA

Aurreko guztia esanda, honako txosten hau sail bidaltzaileari helarazten zaio, eta bertan jasotako oharra kontuan hartu behar direla azpimarratu nahi dugu, batez ere, III. atalean jasotako guztia.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 31

Izpta.: Javier Losa Ziganda
KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOKO ZUZENDARIA.